

Itxaro Borda

## Poesiaren indarra

Joxe Azurmendiren poesia ez dugu askotan aipatzen; alta, ene irudiko, haren filosofo gisako pentsamenduaren oinarrian daude, han eta hemen, publikatu zituen olerkiak. Koldo Izagirrek *Hitz berdeak* (1971) liburuko neurtitz batzuk bildu zituen XX. Mendeko Poesia Kaierak izeneko Susa argitaletxearen sail berezi hartan. Susa aldizkarian, preseski, gehigarri moduan iritsi zitzaigun *Manifestu atzeratua* ospetsu hura ere zenbait urte lehenago. Arantzazutik mundura eramaten zuen euskaldunaren ez-izatearen samina: *Aginako zero bat zen gure inperio guzia...*

Azurmendi hirutan gurutzatu dut nire bizitzan. Inpresio handia egin zidan hiru aldietan. Belokeko komentuan, 1978. urtean, naski, egin zen idazle bilkura batean izan zen lehen aldia; bigarrena, 1985eko Durangoko Azokako *Elizgizonak eta euskara* gaia jorratzen zuen mahai inguru oroigarri batean ([www.youtube.com/watch?v=ijiKwli\\_c1Q](http://www.youtube.com/watch?v=ijiKwli_c1Q)); eta hirugarrena, Donostian, Susarekin plazaratu nuen *Orain* (1998) ene poesia liburuaren aurkezpen ekitaldian. Arantzazuko frantziskotarrekin eta JAKIN gogoeta-aldizkariarekin lotzen nuen Azurmendi, Manex Erdozaintzi-Etxart fraidearen kidegoarekin, hots. *Manifestu atzeratua*-k bazuen, funtsean, *Maiatz* errebistak 1982an, separata moduan, plazaratu zuen *Herri honen erraietan* poema luze epikoaren antz handia.

Gabriel Arestiren doinuko pieza franko aurkitzen da Azurmendirenetan: bilbotarraren itzal biblikoa nabaritzen da, bereziki zegamarra herri honen destinoaz mintzo denean. Bat-batean mistizismoaren bidea baztertzen du, garai haietan bizi-bizia zegoen existentzialismoaren ildoetan galtzeko, fededunei baino, pobreak larrutzen dituen (euskal) gizakiei, ahoan bilorik gabe, hitz egiteko xedearekin. Ez dator salbatzaile antzera, baizik eta herritarren pairamena partekatzen saiatzera, egiazko postura kristiko batean. *Ez dut sekula hitz egin* testuan,

adibidez, perpausak eta erritmoak aldrebestuz kantatzen du: *Eta naiz gizona, zauriturik dagona, duena zartaturik gogoaren sakona.*

Naturarekiko harreman bereziaren lekukotasuna jazartzen da Azurmendiren poema askoren mamitik. Naturaren beraren osagaia da gizakia, gizonak eta emazteak organikoak eta mineralak dira, zuhaitzaren eta barearen ahaide zuzenak. Ideia arraroa, XX. mende erditsuan naturaren eta kulturaren artean leize bat bazegoela pentsatzen zen denbora haietan. Naturaren muinak haurtzaroari hurbiltzen du, amari, kontakizunari, mendiari eta hosto soilari. ‘Heriotzaren arbola gorria’ atalean, Bitoriano Gandiaga bere olerkari lagunaren *Hilgo naiz* errepikatzen du, ez dakigun arren nor zen inprekazio hori erabili zuen lehena.

Azurmendiren poetika irekia da. Edonor sar daiteke hitzen itsaso horretan, ez digu ulertze lan berezirik eskatzen, erran moldeen musikaren erritmoan urtzen garen ber, idazlearen eta irakurlearen arteko batasun konplize bat sortzen delako. Deitzen gaitu oraindik ere: *Utzi zabalik eskuen zabaldura...* nahiz eta zerraldo egon. Hargatik, idealizazio eta aingerukeria arruntetatik urrun, gizakia *Prometeo mixerable* baten moduan itxuratzen du, *gizon izaten hasteko eskubideen deklarazio bat behar duena, gezur txuria nahiago duena egia trixtea baino.*

Poesia hori ez da zimurtu, ez da pasatu, gaur egun berdin irakur daiteke, eta gutaz, gure minez, gure esperantza murritzez mintzo da. Deitzen gaitu. Ez dezagula hitzordua huts egin...